

Aitor Ugalde zeberioztarra Espainiako Kickboxing txapelduna

11. orrialdea

Emusik jaialdiko kontzertuak

Areatzak eta Igorrek parte hartuko dabe Emusik, Musika Eskolen Europako Jaialdian. Areatzan, Suitzako gitarra orkestra batek eta Alemaniako combo batek eskeiniko dabez kontzertuak. Igorreko Kultur Etxean, barriz, Katalunia eta Alemaniako bandak egongo dira. Arratiako Musika Eskolako ikasleak be hartuko dabe parte Areatza eta Igorreko emonaldietan. 13. orrialdea



45 ontzako 6 enbor ebagiten markea ezarri dau Irati Astondoak

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

251

2016ko maiatzaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Regueifa eta bertsoak batera Regueibertson

Arratia Institutuko bertsoaritzak ikasleak eta Galizako institutu biko regueifa berreskuratu guran dabizen ikasleak eskola trukea egingo dabe maiatzean. "Hizkuntzak egiten gaitu. No caminho da lingua" lemapean, ekimenak galiziera eta

euskera indartzeko balio izango dau; baita hizkuntza gitxitu bietan bizi diran ikasleen bizipenak hurreratzeko. Igorreko Kultur Etxean maiatzaren 14an, eta hurrengo egunean Zeanuriko plazan, publiko aurreko ikuskizunak eskeiniko dabez ikasleak. 8. eta 9. orrialdeak

Euskal Herritik Galizara, Galizatik Euskal Herrira

REGUEIBERTSO
hizkuntzak egiten gaitu
NO CAMINHO DA LINGUA

Oroimenean diskoa eta beste memoria ekitaldi batzuk Lemoan



Memoria eta Kultura Astea antolatatu dabe Lemoan maiatzaren 9tik 15era. Memoria gaia hartuta berbaldi bi egongo dira, lubakietan mantentmentu lanak egin eta hurrengo astegoinean

Lemoatzako batailea antzeztuko dabe.

Elkartruke proiektuko gazteak be memoria historikoa eta giza eskubideak landu dabez aurten. Hori dala eta, *Oroimenean* izeneko diskoa grabatu dabe. 5. eta 13. orrialdeak

IGORRE

Errotondako lanak hasi ditue



Igorreko Agirre Lehendakaria kaleko bidekurutzeko nagusian, errotondea egiteko beharrak hasi ziran aprilaren 26an. Lanok bost hilabetetan amaituta egotea espero dabe udalean.

Errotondea errepide kanpoko lanak hasi da: lehenengotik, gasolindegian ondoan hodi batzuk sartuko ditue eta gero obren eremuko oinezkoen guneetan hasiko dira interbentzioak. 7. orrialdea

AREATZA/ZEBERIO

Santa Kurutzeko jaiak

Zeberioko Santa Kurtze ermitan elorri zuria bedeinkatuko dabe maiatzaren 3an. Auzoko jaiak aurretik ospatu dabez aprilaren 29an, hain zuzen be.

Areatzan, barriz, egunaren osteko zapatu-domekan ospatuko dabez Karpoko jaiak. Zapatuan, Karpotik Santikurutze ermitara igoko dira billaroztarrak eta hurrengo egunean, II. Ganadu eta Artisau Azokea izango da Karpotik. Gaztai egite, ardi ule mozte eta apax mozte erakustaldiak be izango dira bertan, Areatzako kaleetara bizimodu baserritarra ekarriz. 5. orrialdea

ZEANURI

Ganadu azokea San Isidro Egunean

Zeanuriko San Isidro Eguneko Ganadu eta Artisau azokak 35 urte beteko ditu aurten. Gure inguruko ganadu azokarik garrantzitsuenetakoa da eta bertara ez bakarrik arratiarrak, Bilbo eta Gasteizko jentea be hurreratzeko, baserri giroan murgiltzeko. Izan be, baserriko produktuak erosi ahal izateko azokaz gainera, lanen erakustaldiak be izango dira. Ganadurik ederrenak saria izango dabe. Arrastian, idi probak, giza probak (andrak) eta regueibertso ekitaldia egongo da plazan. 7. orrialdea

VOGUE ROXY GUESS POLICE GOLA CEBE Silhouette V&L Ray-Ban

Varilux kristalen promozio berria monofokal zein progresiboetan.

Zure 2. kristal pareta opari

VARILUX

Erdu eta galdetu baldintzak.

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ELEUTERIOREN TXABOLEA (II). ZEANURIN BE OSPETSUA

Mendizaleen artean ez ezik, herri mailan be ospe handia hartu eban Eleuterioren txaboleak eta horren lekuko da bere lagunak parranda giroan abesten eutsien eta oraindino Zeanurin oso eza-guna dan Genaro Ibartxik musika-kanta hau:

Zeanuritik baraurik urteten badozu, Gorbeiera orduko damutuko jatzu. Damutuko jatzu te damutuko jatzu, Zeanuritik baraurik urteten badozu.

Eleuterioren txabolan gosea franko izango da,



Gorbeiako artzainak Eleuterioren txabolearen aurrean. **Jadanik jatorrizko txabolea** handituta dago.

baita bere egarrie dalako gizon baragarrie.

Eleuterio, Eleuterio, Eleuterio, Eleuterioren txabolan.

Edo hain ezaguna ez dan eta Eleuterioren txabolan sukaldari moduan behar egiten eban Eugenio Lejarza aitatzan dauan beste hau:

Gorbeian dago etzantegi bat haize ederrak hartzeako, udan bertara datorrentzat osasun ona badeuko.

... Mila berrehun de hogei bat metro itsasoaren gaineti, ezer bertara gura dabenak esan Eleuteriori.

Etzantegian dago otsein bat izena dauko Eugenio, kozinerutzan bera langorik munduan ez dala jai.

...

Urteak aurrera joan ahala jato-

rizko txaboleari atal barriak gehitu jakozan, Eleuteriok bere parte saldu egin eban eta ugazaba barriak agertu ziran. Beste sasoi baten Eleuterioren txabolea izan zanak gaur egun Egiriñon jarraituten dau, hiru zatitan banatuta, eta zati bakotxaren jaubeak honako honetik dira: Iberdrolaren Arnotegi Mendi Taldea, Bilbao Alpino Club eta Juventus alkatrea.

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 2tik 8ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 9tik 15era

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 16tik 22ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu.

Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriatik 12:40ean urteten dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Raket Aldekoa Diez eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Lasterbidean

Orain dala lau urte jarri zan mar-tzan Lasterbidean ekimena, erre-presaliaduen eskubideen aldeko lasterketea.

Herri ekimena da Lasterbidean, nazino alkartasun lasterketea. Ki-rol espresinotik, korrika esparrutik, euskal errepresaliadu politikoen eta euren gertukoaren eskubideen aldeko alkartasun keinua egin gura horretatik sortu zan.

Exetik urrun bizi diranak etxera ekarteko bidea irudikatu gura dogu egiten diran lasterketa herrikoietan.

Desagertzeko bokazioagaz jai-o zan Lasterbidean. Jai-o arazo eben errazoiak desagertzeagaz batera amaituko da, errepresaliadu guz-tiak etxean izatean. Baina bizirik dagoan bitartean herrialdez herrial-de mobiduko da ekimena. Preso eta igeslariaren egoera konpondu artean izerdia botaten segiduko

dogu.

Oiartzun, Larrabetzu eta Berrio-zarretik igaro ostean, bagilearen 5ean, laugarren edizinoa Araia-ara helduko da.

Helduen lasterketeak 8,5 km. ditu eta 11:30ean Araia-ko Udale-txeko plazatik hasiko da, izen emo-tea www.herrikrosa.eus helbidean egin behar da. Ordu bete lehen-a-go umeen lasterketea izango da, 2,9 Km.koa. Sariak be egongo dira, baina sari honeek bereziak izango dira. Irabazleak txapela eroango dabe eta preso eta igeslariak egin-dako eskulanak be emongo dira sari lez.

Lasterketaz gain egun osoko egitaraua antolatu dau ekimenak; kale animazinoa, musikea, herri bazkaria, kontzertuak... Animau eta erdu!

**AIINGERU ARTETXE, XABI KANTSAU
ETA "TXIKI" MARAÑON ARRATIAKO
LASTERBIDEAN-EKO KIDEAK**

Arantzazuko haurreskolea, Arratiako altxor eta eredu

Goxo, maitasun betean eta zo-riontsu. Bestela esanda, etxean moduan. Holan egon dira gure seme-alabak Arantzazuko hau-rriskolan. Lerro honeen bidez, gure esker ona adierazo gura deutsegu Ainhize Abinagoitiz eta Nagore Zamalloa bertako hezi-tzaile bikainai.

Ez da erreza izaten familiarete beroan egondako umea inoren esku ixtea. Ez da erreza ez, etxeko harribitxirik preziadua zaindu, hezi eta maitatzearen ardurea eze-zagunai emotea. Guraso guztiok daukaguz bildurrak, zalantzak, erre-paroak. Aukeran, seme-alabakaz geratuko gintzatekez gustura, edo senitarteko baten jagopean itxiko geunkez. Baina, batzuetan, ezin da.

Arantzazun haurreskola barria zabaldu ebela eta, proba egiteko prest agertu ginan idatzi hau si-natzen dogun bederatzi gurasook. Hilabete batzuk pasau dira, eta ez gara damutu, ezta gitxiago be. Are, harro dinogu: Arantzazuko haurres-kolak eredu beharko leuke izan. Hau da Arratiak behar eta merezi-du dauan hautzaindegia.

Zerbitzu malgu, gertu eta profe-sionala eskeini deuskue Ainhizek eta Nagorek. Bere txikian, handi bihurtu dabe gure seme-alaben bizi-esperientzia. Euren zintzota-sunagaz eta maitasunagaz liluratu egin gaitue Areatzatik, Dimatik, Usansolotik eta Igorretik beren-beregi joandako gurasoak.

Umiltasunez eta goxotasunez, umeak askatasunean hezi ahal dirala frogatu deuskue hilabete ho-neetan. Askatasunez hezi, zorion-tasunean hazteko. Badogu danok zer ikasi, zer irakatsi, baina batez be, zer eskertu. Mila esker Ainhize eta Nagore, bihotz-bihotzez.

**ARANTZAZUKO HAURRESKOLAKO
GURASOAK**

ERETXIA



JUANTXU REKALDE IZAGIRRE

Arratia Institutuko irakaslea

Badakizu zer dan regueifa bat?

Zure belarrietara zeozer hel-duta izango da honezkero, irakurle, Arratiako hainbat gazte errifa saltzean ibili da eta. Regueibertso deitzean dan eki-menaz nabiltzu, jakina. Igorreko Arratia Institutuko bertsolaritza tailerreko ikasleak buru belari sartuta eta ilusinoz gainezka jabil-kuz "Ahozkotasunak lotzen gaitu" leloa zabalitzen.

Euskal Herriko bertsolariak oso ezagunak doguz. Bazenkien baina, Galizan be bertsolarien parekoak diran regueifadorak dagozala? Regueifa gai baten inguruan, gehie-netan umorezkoak, bi edo lagun gehiagoren artean inprobisautako kantua da. Ez ete da hauxe bera gure bertsolariak egiten dabena? Atzera begiratuta, koplak moduko honeek tradizino oso luzea dau-kie, Erdi Aroko galego-portuges zaharrean sortuak baziralako jada. Gaur eguneko egoera, tamalez, bestelakoa da. Esan leiteke zahar batzuen ahoetatik eta eskualde jakin batzuetan baino ezin dirala entzun regueifak: A Coruña-ko Costa da Morte, eta Galiza eta Portugal arteko mugan, A Raia inguruan hain zuzen be.

Zer da ba, Regueibertso eki-mena? Ekimenaren oinarria Gali-zako Baio eta Vila de Cruzes eta Arratiako hiru ikastetxeen arteko ikasleen trukea da, regueifa eta bertsoa oinarri diralarik jakina. Hiru institutu-eko bertsolaritza Tailerretako ikasle gazte euskal-dun eta galegoen arteko kultura eta esperientzia trukaketa egitea da helburua, hau da, hizkuntza

gitxitu bitan bizi diran ikasleen bi-zipenak hurretik egitea. Arratiarrak maiatzaren 2an joango dira eta galizarrak maiatzaren 13an Euskal Herriratuko dira.

DBH1 eta DBH2ko ikasleak dira gehienbat gureak. Astean ordu beteko saioa egiten dabe bertsotan, pozarren gainera, Iñaki Iturriotz bertsolariaren gidaritzapean. Baina zer gertatzen da 16 eta 17 urtetik gorantzako gaz-teakaz? Euren saioan Juanjo Respaldiza bertsolari ezaguna dabe irakasle, baina adin horretan —hortxe daukagu koskarik larriena— ia ez dago bertsolaririk. Nerabearoa gogorra da benetan! Hori dala eta, gogotsu dabilzan gazteak desmotibau ez daitezkan be antolatu da ekimen hau.

Taldea be egin gura dogu bide batez, Arratiako bertsolari gazteen taldea. Regueibertso ekimena piz-garria izan lei horretan. Han-hor-hemen dabilz egunokaz errifak eta kamisetak saltzean. Atsedena-dietan bertsoak buruz ikasi eta entseguak egiten... Danak prest egon behar dau maiatzaren 14an Lasarte Aretoan ikasle eta irakasle galego eta euskaldunak egingo daben Regueibertso ikuskizunera-ko.

Mila esker proiektu honetan bidelagun izan zaituegun guztioi:

- Arratiako eta Bizkaiko Bertso-zale Elkarteari hasikeratik babes osoa emotearren.
- Zenbat Gara Elkarteari Bilbo galegoz erakusteko erronkeari baietz esatearren.
- Arratia Institutuari beti lagun-tzen eta ondoan egotearren.
- Dimako Olar Herri Kirol Tal-deari horrenbeste laguntza emotearren.
- Igorre, Areatza, Dima eta Zea-nuriko Udalai, eskatutakoari baietza erantzutearren.
- Musikea, bertsoak, barreak eta lagun barriak tarteko, etorkizunari baikor begiratzeko unean gagoz. Bai ala bai. Asmatzen gabilzan ala ez, denporeak eta etorkizunak esango deuskue!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Jagon



Arriskuan dagoana babestu, hau da gatxetatik kanpo mantentzen esan gura dau jagon aditzak. Jagon berbea be jaso dogu Arratian (yágon, yámon, agoskatuta). Euskera batuan zaindu erabilten da. Jagotea ardurea hartzea be bada, esate baterako norberaren itxura fisikoaz berbetan gabilzanean. Ondo jagoten dan personea edo kargu hartuta dagoana gero eta gehiago baloratuten da gure gizartean.

BATZ 50 URTE
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ
EGILEORFeminismoa
prestigiatzen

Atzen urteotan Arratian feminismoa hedatuten eta sendotuten doa. Horren ondorioetako bat, Arratian sortu barri dan Andren Jabe-kuntza eskolea da.

Feminismoa gero eta gehiago prestigiatzen doa. Prestigio honek andrak ikusgai egiten gaitu, gure presentzia eta parte hartzea eremu guztietan beharrezkoagoa egiten dau, eta eguneroko bizitzan gero eta jente gehiagok "betaurreko lilak" ipinita ibiltea ahalbideratuten dau.

Mobimentu feministeak eta Arratian dagozan andra talde desbardinak, atzen urteotan egindako lana eta ibilibidearen frutua da eskola honen sorrerea. Bestalde instituzinoen aldetik, kasu honetan Arratiako udalak Mankomunitatearen bitartez, eskola honen beharra barneratu eta martxan jartzeko apustua egin dabe. Bikain! Ora in eskolea garatuteko eta behar

diran moduko formakuntzea eta ekintzak martxan ipinteko baliabide ekomomikoak izatea da espe-ro doguna.

Arratiako androk tresna oso baliagarria daukagu eskuartean eta etekina aterateko gai izango gara. Eskola hau andra guztiona da, feministena, eta euren buruak feministatzat jotzen ez daben andrentzat be bai.

Eskoleak hainbat ikastaro interesgarri antolatuko dauz. Gizar-tean bizi doguzan jokabide matxisten aurrean jarrera kritikoa izaten eta hori eraldatuteko tresnak eskeiniko deuskuz. Gure gaitasunez jabetuteko bidea be bada. Beraz, banakako jabekuntzea eta jabekuntza kolektiko horrek derrigorrez, feminismora hurreratuten zaitu!

Eta amaitzeko, Jabekuntza Eskolearen aurkezpen egunean, Norma Vazquez feministeak erabili ebazan berbak nabarmenduko dodaz "kontua ez da lagunak izatea; aldaketarako, hau da tratatu eta aukera bardinak izateko, bat egitea baino".

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Lau urte pasatxo baino ez ebazan traste horren zarata ha lehenengo bider entzun ei ebanean. Irratian izan zan, BBC-n, gerra sasoiaren fronteko albisteak entzutearren gurasoek erositateko irratia zahartxo haretan. Emisinoaren zaratak Edward Elgarrek konposau eban "Txelorako kontzertua" lan gogoangarriaren melodiagaz batera aditu eitekezan etxeko bazter guztietatik. Orduan, Jacqueline txikia guztiz miratuta adituten ebazan txeloak egiten ebazan orro antzeko hareek. Latza zan hasikera baten tresna haretan melodia zerutiarrarik topetea, baina, halanda be, bazan Jacqueline txikia erabat erakarten ebana, musika tresna haregazko lotura azalduzin bat. Harrezkero, ahiztagaz batera musikaria izatera olgau eban. Eta olgeta berehala praktika bihurtu zan, ama musika irakaslea eukielako. Jacqueline txikiak txikiagoa irudian hatzamar ikaragarri trebeez batzuetan, eta arkuaz besteetan jotzen eban txeloaren ondoan, erabat galduta txeloaren taiuera handiaren artean. Ahizta, bitartean, beti izango eban lehiakide. Eta Jacqueline txikiak txikia izateari itxi eutsan halako baten. Txeloaren misterio guztiak ikasteko, atzerrian

egindako egonaldiak etorri ziran. Jacquelinek sasoi onenakaz ikasi eban. Eta, bitartean, ahizta beti izango eban lehiakide. Jacquelinek "Finzi" ezetu ebanean, pronto agertu zan ahizta harreman horren inguruan. Jacqueline gazteak hondoa jo eban medikuek esklerosi anizkoitza diagnostikau eutsienez. Ahiztak, aldiz, egoera bere alde baliatu eban. "Finziren" amorantea egin zan, Jacquelineri zeloak nagusituzen jakozan artean. Dana dala, Jacquelinen berehaldiak ez eban luzaro iraun. Gaixotasunari aurre egin eutsan, eta txikitan entzun eban Edward Elgarren musikea joteko gai izan zan. Amodioan be nagusitu zan. Borenboim ezetu ebanean, emoten eban erabateko zorientasuna posible zala. Baina urte gitxiren buruan gaixotasunak Jacquelinen hatzamarak hozminduta itxi ebazan, txeloa jo ezinik. Bere Eduardo maiteak ez eban denporea galdu, eta beste txelo-jole bat topau eban, kontzertuetarako eta oherako be bai. Eskleriosiak Jacquelinen gorputza jaten eban bitartean, zeloak barriro nagusitu jakozan.

Izan be, zeloak beti hur bizi izan ziran Jacquelinen txelotik.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Literatureak mundua ulertzen lagunduteaz gainera, sormena eta irudimena elikatzen dauz. Txikerrenak dira irudimen handiena daukienak eta akaso horregaitik Liburuaren Eguneko protagonistak izan ziran Zeanurin, eta ondino irakurten be ez dakien umeak sortutako ipuinez gozatuteko aukerea izan eben ume eta nagusiak.

Apirilaren 22an ospatu zan Zeanurin Liburu Eguna. Arrastiko 17:30ean Haur Hezkuntzako umeak sortutako ipuinak irakurtera animau ziran guraso batzuk. Ondoren, eguraldiak lagundu ebanez, plazara joan ziran danak, bertan liburu trukea egiteko. Gero, LH1., 2., 3., eta 5. mailako ipuinak jolas bihurtu ebazan eta ondoren, LH4koak sortutako ipuinaren bat-bateko antzezpena egin eben. Atzen kontaketea LH6koak ekarri eben eta entzun ahala istorioa iruditan ipini eben.

Umeak eta gurasoak itzel pasau ebela dinoe lekukoak.

Literatureak mundua ulertuten lagundu eta sormena eta irudimena elikatzen dauz. Apenas irakurten jakin barik egun ederra pasau eben Zeanuriko umeak ipuinen artean.

Pentsau zelako plazerra izan daiteken arrastia liburu artean pase-tea irakurten ondo ikasitakoan!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

LEMOA

Memoria historikoa eta Giza Eskubideak gai hartuta, diskoa kaleratuko dabe Lemoako Elkartrukea proiektuko gazteak

Erredakzioa

Aurten, Lemoako Elkartrukea proiektuko 16 eta 21 urte bitarteko gazteak Frankfurt eta Berlinera joango dira abuztuaren 17tik 24ra. Ikasturtean zehar Memoria historikoa eta Giza Eskubideak landu dabez eta gai horreetan sakonduteko balio izango dau biajeak. Gai horreek hartuta, hile amaieran kaleratuko dan *Oroimenean* CD be grabetan dagoz orain.

CDa maiatzaren amaierarako ka-

lean egotea espero dau Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak. Zortzi kantu, poema bat eta bertso bat batuko dira bertan. Kantu horreetako sei, barriak dira, diskorako sortutakoak. Ibon Izak, Arkaitz Estiballesek eta Unai Santosek, beste batzuen artean, sortu dabez kantuetako letrak; poemaren egilea Igor Estankona izan da, eta bertsoak Igor Meñikak egin dauz.

Institutuko ikasleak, Arratiako abeslari eta Bertso Eskolako lan guntasuna be izan dabe disko hau egiteko.

Frankfurt eta Berlinera

Elkartrukeko gazteak Europatik biaje bat egiten dabe urtero; beti be, kursoan zehar landutako gaigaz lotuta ekintzak ahalbideratuten dabez urietara. "Proiektu sendoa da, urte osoa aprobetxetan dogu gaia landuteko" dino teknikariak.

Aurtengoa antolatuteko, memoria historikoaren inguruan, Euskal Herria eta Alemaniaren arteko hartu-emonak sendotuteko behar egiten dauan Baskale alkatetaz ipini dira kontaktuan. Honen bitartez Alema-

niako hainbat alkatetaz hartu-emonak izan dabez eta alkar eta alkarren lana ezetuko dabez Frankfurt eta Berlinen. Helburua "hara joaten garanean, guk Lemoan memoria historikoan emon doguzan pausuak eta gerra zibila ezagutzera emotea" da Mikel Garciaaren arabera.

Lehenengo urtean Irlandara joan ziran proiektu honetako gazteak, eta bake prozesuagaz lotu eben

biajea; bigarren biajea Portugalera izan zan, kultur aniztasunagaz lotuta; igaz, Eskoziara joan ziran, erreferenduma eta parte hartzea landu eben han, eta aurten, Alemaniara joango dira, memoria historikoa eta giza eskubideakaz lotutako biajea. Ikasle eta begiraleakaz batera, ikusentzunezkoetan aditu bi be joango dira aurten, gaiaren gainean dokumentala grabetako.



Lemoako gazteak.

AREATZA

Astondoa Pirotekniak, epai batek agindutakoa ez deusala ordaindu salatu dau behargin izandako Antonio Harillok

Erredakzioa

2015eko abenduaren 4an Bilboko Lan-arloko 4. epaitegiak emondako epaiak, Astondoa Pirotekniak eta Antonio Harilloren lan hartu-emona amaitutzat emon, eta indemnezazioa eta zorretan eukazan soldatak pagatzera kondenau eban enpresea. Lau hilabete beranduago, artean dirurik ez dauala jaso salatu dau Harillok.



Astondoa Pirotekniak.

Urteak daroaz Astondoa Pirotekniak beharginai soldatak modu irregularrean pagetan eta egoera horretan ezin ebela jarraitu ikusita, behargin bik enpreseari kalera-zea eskatu eutsien. Euretako bat enpreseagaz akordio batera heldu zan, baina Harillok epaitegi-erara eroan eban auzia eta epaiak errazoa emon eutsan Areatzako beharginari.

Antonio Harillok 42 urtez egin dau behar Astondoa Pirotekniak

kaleratzea eskatu aurretik.

Pirotekniak produktuen salmentak behera

Izaskun Astondoa Pirotekniak Astondoko gerenteak, hartutako ebatzi guztiak aktibitatea eta lanpostuak mantentzea daukiela helburu dino.

Pirotekniak produktuen salmentan handienak udan eta Gabonetan izaten dira. "Errealitatea da atzen 8 urteotan, salmentak % 40 edo 45 gixitu dirala eta horrek enpresan izan dauan eragina handia izan da. Lan kostuak eta bestelako kostuak neurri horretan ajustetan saiatu gara aktibitatea eta lanpostuak mantentzeko". Aktibitatea mantentzea epaiak agindutakoa pagau ahal izateko modu bakarra dala dino.

AREATZA

Aldamin jatetxeko pleguak eskuragarri

Erredakzioa

Areatzako Udalak, udal igerilekue-tako taberna eta jatetxearen zerbitzua kontratatuko lizitazinarako pleguak onartu ditu. Proiektuak maiatzaren 13ra arte aurkeztu daitezke. Lau urteko lizitazioa da, beste lau urtez luzatutako aukeragaz. Pleguak Udaleko webgunean edo udaletxean bertan jaso daitezke.

Areatzaren garapenerako turismoak daukan garrantzia kontuan hartuta, proiektu sendoak hartuko dirala kontuan dino Asier Garcia Areatzako alkateak. Langileen profesionaltasuna, kontratuak eta konbenioak egunean egotea, menuak, bertoko produktuak erabiltea, euskera eta Gorbeia-ko turismoa bultzatzea baloratu dira.

Alkarrizketa bat egiteko aukerea be zabalik itxi dabela dino alkateak "punturik ez dau emongo, baina aurkeztutako proiektua eta pertsonen arteko koherentzia konprobatuko balioko dau". Jarraipen batzorde bat be egongo da.

Alokairua merkeago

Alokairua erdira jeitsi dau Areatzako Udalak, 150 eurokoa izango da, aurrekoa 300 eurokoa zan bitartean.

Udal igerilekue-tako Aldamin taberna eta jatetxeak garrantzia handia dauka Areatzarentzat, bai bere kokapenagaitik Gorbeiarako bidean, bai igerilekuakaitik. Igerilekuak zabaltzen diranerako, funtzionamentuan egotea espero dau Areatzako alkateak.

AREATZA/ZEBERIO

Santa Kurutze jaiak Areatzan eta Zeberion

Erredakzioa

Zeberioko Santa Kurtze ermitan, elorri zuria bedeinkatuko dabe maiatzaren 3an antxinako tradizioak aginduten dauan moduan. Aurreko barikuan, aprilaren 29an ospatu eben auzuneko jaiak. Areatzan, barriz, egunaren osteko zapatu-domekan ospatuko dabez Karpoko jaiak.

Jai egun bi antolatu dabez Zeberioko Santa Kurtzen. Egunaren aurreko barikuan, txupina bota ondoren, umeentzako jolasak, Tortilla Lehiaketeak eta suzko zenezak osatu eben jaietako kartela.

Hilaren 3an, martitzenean elorri zuria bedeinkatuko dabez ermitan. Antxina, elorriak ortuen zainketarako bedeinkatzen ziran. Bedeinkatu ondoren, ortuan sartzean ziran. Egun, elorria bedeinkatzeko tradizioari eusten deusie zeberioztarrak. Eguerdiko 12:00etan erramuak bedeinkatu ostean, baraskarria egongo da ermita inguruan txistularien animazioagaz.

II. Ganadu eta Artisau Azokea Areatzan

Santikurutze izena dauka Areatzako izenpe honetako ermiteak. Sasoi baten galdu baziran be, atzen urteotan billaroztarrak erreku-perau egin dabez ermitara igoteko ohitua eta inguruko jaiak. Ekin-tzaz betetako egun biko egitaraua prestatu dabez, tartean II. Ganadu eta Artisau Azokea.

Sano baserritar izaerea daukie Karpoko jaiak. Maiatzaren 7an,

zapatuan, Santikurutzera igoera eta erromeria giroa izango dira nagusi eta hurrengo egunean II. Ganadu Azokea Karpon. Gaztai egite, ardi ule mozte eta apax mozte erakustaldiak be izango dira, Areatzako kaleetara bizimodu baserritarra ekarriz.

Areatzako txistulariak, Galizako gaiteruak, umeen jantzak, Folketan folk taldeak, Albokalek eta Bufo Kalamitak ipiniko dabe musikea.

Egitaraua

Maiatzak 7, zapatua

10:00etan, Santikurutzera igoera.

11:00etan, mezea Santikurutzen.

11:30etan, hamaiketako Santikurutzen Areatzako txistulariakaz.

12:30etan, Ceo do Sil galizar taleko gaiteruak Karpon.

13:30etan, umeen jantzialdia. Areatza, Zeanuri eta Dimako

umeak Karpon.

14:30etan, Gisadu Lehiaketearen aurkezpena.

15:00etan, bazkari herrikoa (Bakotzak berea eroan behar dau).

18:00etan, erraldoiak Karpotik herrira.

19:30etan, Folketan folk taldea plazan.

21:00etan, Bufo Kalamita taldea tabernetatik.

Maiatzak 8, domekea

10:00etan, II. Ganadu eta Artisau Azokea.

11:00etan, kalejireta Albokalegaz Karpura.

11:00etan, gaztai egite erakustaldia.

12:00etan, ardi ule mozte erakustaldia.

13:00etan, apax mozte erakustaldia.

13:30etan, kalejireta herriko plaza-
ra eta zozketeta.

IGORRE

Igorreko Andren antzerki tailerrak bigarren lana sortzeari ekin deustso

Erredakzioa

Urtilaren 29an, Igorreko andra talde batek *Mujeres saliendo del cuento* antzeztu eban Lasarte Areatoan arakasta handiz. Aprilean, igazko tailerraren jarraipena hasi zan eta beste antzeztan bat sortzeari ekin deustsie. Prozesua luzea da eta, partaideen arabera, seguruena, ur-

tailera arte itxaron beharko da bigarren lan hau taula gainean ikusteko.

Jabekuntza prozesuetan aditua dan Miriam Herbonen zuzendaritzapean, tailerraren helburua andren jabekuntza prozesuetan lagundutea da. Aurten partaide bi gehiago da-



goz eta gehiago izatea espero dabe taldekoak, taldea andra gehiago hartzeako zabalik dago eta.

Tailerraren metodologiari jagokonean, "barrio asmatu eta idatziko dogu istorio bat danon artean, eta bide horretan Miriamek ariketak eta eretxi trukeak proposatzen jarraituko dau jabekuntzea landuteko. Istorioetan gizarte patriarkal honetan andrentzako dagozan zailtasunak agirian itxi gura doguz baina tono komikoan. Beti ez da erreza" dino Soraya Lizundia partaideak. "Mezua argi geratu daitela eta ahalik eta ondoen antzeztu gura dogu, baita andren artean konplizidadea, adiskidetasuna eta sororidadea areagotzen lagundu be".

Tailerra astelehenetan izaten da 18:00etatik 20:00etara Igorreko Kultur Etxean.

DIMA

Dima UEMAren sartzearen kontrako helegitea sartu dau Espainiako Gobernuak

Erredakzioa

Udal iturriak jakitera emon dabenaren arabera, maiatzaren 28ko Batzar Nagusiak onartu arte, Dima ondino UEMAko kide ez dan arren, Espainiako Gobernuak helegitea ipini dau Dimako Udalak UEMAren sartzeako hartutako erabagiarren kontra. Erabagi horrek udalari jagokozan

eskumenak gaintitzen dituala argudiatu dau Espainiako Gobernuak EAEn daukan Carlos Urkijo



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ordezkariak.

Urtila ezkerotzik, Espainiako Gobernuak helegite bera ipini eban UEMAko kide dan Eako Udalaren kontra martian. "UEMAra sartzea erabagiteagaitik, Zeraingo eta Berastegiko Udalen kontrako helegiteak be epaitegietan dagoz, eta ez da horreen inguruko epairik emon ondino" azaldu dabe Dimako Udaletik.

IGORRE

Aukeren Azokea Igorren

Erredakzioa

Maiatzaren 14an, goizeko hamarretatik iluntzeko zortzirak arte, Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME), Aukeren Azokea antolatu dau Igorren. Herriko dendariak euren produktuak aterako dabez kalera Kultur Etxearen inguruan, eta jentek erosi ahal izango dauz jaigiorean egun osoan zehar. Parte hartuko daben dendak honeek dira: Ainara Kirolak, Argiker, Enar Kirolak, Ezkur, Iratxo, Mugari eta Sein. Umeentzako tailerrak be

egongo dira bostetatik aurrera eta 20:00etan, spa eta afaria zozketatuko da bertan dagozan artean.

Dirua aurrezteko helburuagaz hurreritzen diranak, "Zelan aurreztu argiaren fakturan" berbaldian horretarako gakoak ikasteko aukerea izango dabe; eguerdiko hamabietan euskeraz, eta arrastiko bostetan gaztelaniaz.

AMEk, urtean zehar hainbat ekimen antolatuten dauz, ia beti jaigiorean, herriko merkataritza bultzatzeko eta merkatalgune handien kompetenziari aurre egiteko.

ARANTZAZU

Iturrien bira

Erredakzioa

Arantzazuko Kultur Batzordeak V. Iturrien Bira antolatu dau aurten. Ibilbideak 12 km. inguru izango ditu eta partaideak bidean topautako 9 iturritan edan ostean, iturriko plazan edango dabe azken tragua. Maiatzaren 7an izango da eta martxea plazatik abiatuko da 09:30ean. Iturriak ondo zainduta topauko dabez ibiltariak. Izan be, aprilaren 30ean, Kultur Batzordekoak iturriak garbituten eta txukuntzen ibili ziran. Aurten, panelak ipiniko dabez iturrien izeinak.

Ibilbide bakarra izango dau martxeak. Plazatik urtenda Artaberantza joango dira, lehenengo iturriantza joteko, Bizkerrera, hain zuzen. Ondoren Errekotxera eta jarraian Zalbiden dagozan iturri bietara. Gero Olarrakora eta Katikenara. Bidea kurutzatu eta Aitzuzarrera joango dira ibiltariak.

IGORRE

EH Bildu Bizkaiak urigintza eredu alternatiboai eta HAPOai buruzko jardunaldia antolatu eban Igorren

Erredakzioa

Bizkaiko EH Bilduk jakitera emon dauanaren arabera, partidu honetako 60 ordezkari baino gehiago alkartu ziran aprilaren 23an Igorreko Kultur Etxean, urigintza eredu alternatiboak aztertzeke eta Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorrak (HAPO) lantzeako, tokiko garapena eredu hartuta.

Mintegiaren helburua HAPOen inguruan eztabaida bultzatzea izan zan. Izan be, HAPOa "tokiko erakundeen kudeaketarako oinarriko erremintea da, eta beharrezkoa da jentartean sozializatea. Tresna egokia izan daiteke adreiluaren politika gaintzeko, erakuntza masiboa gelditu arazoteko eta makroproiektuak aurre egiteko". HAPOak herriak diseinetako tresna moduan ulertu behar dirala dinoe. Personak

oinarri hartuta, natura babestu eta espekulazioari atek itxi, garapen jasangarrian pentsau eta desarrollismoari uko egiteko balio dabe, EH Bilduko enstez.

Mintegia

Mintegia, plenario bategaz hasi zan. Bertan HAPOen nondik norakoak azaldu ziran, natura babesteko beharra azpimarratu zan, diagnostikoen gainean egin eben berba, eta ostean planeamentuetako eredu barriak aztertu ebezan, herritarren parte hartzea oinarrian jarri. Ondoren, ordezkariak sei lantaldetan banandu ziran. Genero ikuspegia eta garraio jasangarria, Etxebizitza eta eregitako ondarea, Elikadura subiranotasuna, Ura, energia eta hondakinen kudeaketea, Basoen kudeaketea eta Euskerea eta urigintza aztertu ebezan.



Igorren egindako batzarraren irudia.



IGORRE

Batzeko andrazkoen aldagelan kamera ipini eban behargina kaleratu dabe

Erredakzioa

Batz enpresako kooperatibisten % 93k, andrazkoen aldagelan kamera ipini eban beharginari ez kanporatzeko errekurtsioa ez onartzea erabagi eben ezohiko asanbladan.

Batzek falta oso lama ipini eutsan beharginari, konpainiaren bame araudia eta Bardintasun Planaren barruko sexu-jazarpenaren kontrako protokoloa urratzeagaitik. Hori dala eta, kontseiluerrektoreak kanporatu egin eban, baina honek, kooperatibistea izanda, errekurtsioa ipini eban enpresara itzultzea eskatuz. Kooperatibisten ezohiko asanbladeak atzera bota dau helegitea.

IGORRE

Autobus geralekuak lekuz aldatu dabez, errotondako lanak dirauen bitartean



Errotondako lanak hasita dagoz.

Erredakzioa

Igorreko Agirre Lehendakaria kaleko bidekurutze nagusian, errotondea egiteko beharrak hasi ebezan apirilaren 26an. Lanok bost hilabete luzatutea espero da eta bitartean autobus geraleku bi lekuz aldatu dira.

Holan, Dimatik Bilbora doan autobus lineako ordezko geralekua Sabino Arana 2 zenbakiaren aurrean kokatu da, eta Zeanuritik Bilbora doan autobus lineak Agirre Lehendakaria 31 bis aurrean dauka geralekua. Txartelen kabinatxoak be Agirre Lehendakaria kaleko gune honetara mobidu da. Momentu honetan Zeanuritik eta Dimatik Bilbora doazen autobusak gune berean daukie geralekua, baina lanak oinezkoentzako oztopo diranean, beste geraleku bi prestatuko dira.

Adjudikazioa, ateratakoa baino % 22 merkeago

Igorreko Udalak 609.553 eurotan atera ebazan lanok kontratazinora. Proposamenak sartzeako epean 14 enpresa aurkeztu ziran. Adjudikazioa Lasuen SL enpresarentzat izan da, ia % 22ko bajeagaz. Hau da, 476.853 eurotan adjudikatu da.

Igorreko sarrerako lanen proiektu osoa aurreko legegintzaldian landu eta amaitu zan, baina Foru Aldundiko errepideetako baimena eta URako baimena behar izan ditu eta atzenengo baimenak aurten heldu dira udalak jakitera emon dauanaren arabera.

Lanok kamino kanpoko lanokaz hasi dira: lehenengotik, gasolindegia- ren ondoan hodi batzuk ezarriko ditue eta gero obren eremuko oinezkoen guneetan hasiko dira interbentzioak.

ZEANURI

Ganadurik ederrenak eta baserri jaigiroa sanisidroetan

Erredakzioa

Atzenengo 35 urteotan legez, Ganadu Azoka ikusgarria eta baserri munduaren jai jentetsua ospatuko da Zeanuriko San Isidro egunean. Ganaduak ikusi, erosi edo saldueteaz gainera, baserriko lanen erakusketak eta hainbat produkturen dastaketak egongo dira azokan.

Behiak bakarrik ez, ardiak be izango dira Zeanuriko ferriako protagonistak. Izan be, ardiak ereisten eta gaztaiak egiten erakutsiko dabe pastoreak azokan. Garagardo dastaketea, zeramika tailerra eta txokolatea egiteko prozesua be erakutsiko dira bertan.

Arrastian idi probak eta giza probak. Bigarren honetan, Zeanuriko andrak ibiliko dira harria garraiatzen eta euren indarra erakusten.

San Isidro eguna baino egun bi lehenago, Zamudio, Bilbo eta Zeanuriko koruak kontzertua eskeiniko dabe Andra Mari eleizan. Hurrengo egunean herri bazkaria egongo da Jubiladuen tabernan. Izena hilaren 11 baino lehenago emon behar da bertan.

Maiatzak 13, barikua

20:00etan, Zamudio, Bilbo eta Zeanuriko koruak eta txistulariak Udabarriko kontzertua, Andra Mari parrokian.

Maiatzak 14, zapatua

14:30ean, herri bazkaria jubiladuen

tabernan; 17:00etan umeentzako tailerrak; 19:00etan, Benta Zaharreko Mutiko Alaiak-az kantu-bertsu poteoa.

Maiatzak 15, domekea

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXV. edizioa. Azokearen barruan hurrengo ekintzak egingo dira: ardiak ereistea, gaztaigintzea, garagardo dastaketea, zeramika tailerra eta txokolategintzearen prozesuaren azalpena.

11:30ean, mezea San Isidro eleizan. 12:30ean, Arrikibar jantza taldearen saioa Ibarreta plazan.

13:30ean, ganaduen sari banaketea plazan.

17:30ean, idi probak eta giza probak (andrak) probalekuan.

Jarraian, Regueibertso ekimena Arratia eta Galizako institutuetao ikasleen eskutik. Plazan eta herriko tabernetan.



LEMOA

Euskerea aisialdian bultzatzeko ginkaneak



Erredakzioa

Maiatzaren 14an, Karabie Gazte- tearen azpian, ume, gazte zein helduentzako ginkaneak antolatuko dau Lemoako Euskera Zerbitzuak. Helburua aisialdian euskerea bultzatzea da, euskeraz ondo pase- tea posible dala erakutsiz.

Parte hartuko daben taldeak, lau eta sei persona artekoak izango dira eta izena taldeka edo banaka emon daiteke maiatzaren 6a baino lehen Euskara Zerbitzuan. Izena banaka emon daben artean taldea egingo da.

Ginkaneak, proba desbardinak izango ditu. Talde bakoitza berea egin beharko dau eta beste proba batzuk be egin behar izango ditue lehian beste taldeakaz. Parte hartzean daben talde guztientzako saria egongo da eta ondoren, mokadutxoak.

Facebooken bidez online erosteko aukerea daukazu

Udabari honetan guaparik joateko tizu Galantara!

946.319.008
658.195.031

Sartu gure Facebook-eko orrian
www.facebook.com/galanta.lenceria
Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA zure barruko arropa
M. JOSE barrutik janzten zaitu

ARRATIA INSTITUTUA

Galizako regueifa eta euskal bertsoak batzean dabezan ikuskizunak ikusgai maiatzean

Arratia Institutuan, Regueibertso izenagaz, trukea antolatu dabe Institutuko bertsolaritza ikasleen eta Galiziako regueifa, bapateko koplak, berreskuratu gura dabezan ikasleen artean. Ekimena, Galizan sortu zan eta Igorreko Udala, Arratiako Bertso Eskolea, Bizkaiko Bertsozale Elkartea, Zenbat Gara alkartea, Areatzako Udala, Dimako Udala, Zeanuriko Udala eta Dimako Olar Lur Herri Kirol Taldearen babesu dauka.

Ez da egunotan Arratia Institutuak egin dauan eskola truke bakarra. Izan be, frantseseko ikasleak Britainiako Guingampeko gaztelania ikasleakaz egin dabe trukea aprilean. Aprilaren 17tik 23ra egon ziran bretoiak Arratian, eta 24tik 30era, Guingampen arratiarrak.

Erredakzioa

Bertsolari Elkartegaz antolatutako programan parte hartzean daben DBH1 eta DBH2ko ikasleak, Galizako regueifa koplak tradizioa berreskuratu gura daben ikasleak eskola trukea egingo dabe maiatzaren 2tik 5era eta 13tik 16ra.

Galiziarren ekimenez sortu da truke hau. "Manuel Maseda, Galiziako ikastetxe bateko zuzendaria, Arratiako ezagun batzuen bitartez, harremanetan ipini zan gugaz, bera, hango regueifa, gure bertsoaren antzekoa, bultzatzailerak. Bera eta Sechu Sende irakasle eta idazlea, regueifa berreskuratu guran dabiz eta", azaldu deutso BEGITURI Hektor Rodríguez Arratia Institutuko zuzendariak.

Maseda eta Sende hainbat proiektu dabiz aurrera erosten euren institutuak ikasleakaz ahozotasuna berreskuratuteko, eta prozesu horretan, pentsau eben ondo egongo litzatekela Euskal Herrira etortea bertsolaritza ezetuten. Hori dala eta, Arratia Institutuagaz ipini ziran kontak-

tuan eta Institutuan, proiektua begi onez ikusi eben. "Gainera guk bertsolaritza ikasleak daukaguz, Bertsozale Elkartegaz batera erosten dan programa berezi bategaz eta Bertsozale Elkartea bera be inplikau da honetan" dino zuzendariak. Bertsozale Elkartegaz antolatutako programan parte hartzean dabenak, euskera ikasgai, astean ordu batez bertsolaritza landuten dabe Bertsozale Elkarteko Iñaki Iturriotz irakasleagaz.

Regueibertso jalgi hadi plazara

"Hizkuntzak egiten gaitu. No caminho da lingua" lemapean, ekimenak galiziera eta euskera indartzeko balio izango dau, regueifa eta bertsolaritzearen arteko antzekotasunak eta berezitasunak antzemateko, herri bietako ikasleen arteko hartu-emonak sortzeako eta alkar ezagutza sustatzeko, beste gauza batzuen artean. Izan be, ekimen honen helburu nagusia, "hizkuntza gixitu bitan bizi diran ikasleen arteko bizipenak hurretik" ezetutea da, eta "galegoak bertsolaritzaek

hizkuntzeari emoten deutsan hauspoari buruzko informazioa, bertatik bertara jasotea". Beste helburu batzuk, ahozotasuna oinarri daukien ekintzak egitea, ikasleak kulturartekotasuna eta aniztasuna moduko baloreak barneratzea, hizkuntzen garrantziari erreparau eta erabilera bultzatzea eta ikasleen alkarbizitza gaitasuna garatzea dira. Horretarako, Euskal Herriak Galizara joan eta Galizatik Euskal Herrira etorriko dira institutuak ikasleak.

Arratiarrak Galizara joango dira



lehenengotik. Maiatzaren 2tik 5era egongo dira Santiago de Compostelako aterpetxe baten. Hara heldutakoan ondo etorria egingo deutsee eta hurrengo egunean, A Coruña dagoan Baioko Institutura joango dira ahozotasuna lantzeako ekintzak egiteko. Pontevedrako Vila Cruzeseko Institutua bisitetako txandea izango da gero, eta azken egunean hiru institutuen arteko alkarbizitza jaia egingo dabe.

Galiziarrek, hilaren 13tik 16ra egongo dira gurean eta ahozotasuna landuteaz aparte, eskualdea eta Bilbo bisitetako aukerea izango dabe.

Baina antolatzaileak, ekimena publiko orokorrari zabaldu gura izan deutsee eta eskualdeko herrietako kaleetan, eta Igorreko Kultur Etxean, ekintzak antolatu dabez, gura dauanak regueifa ezetuteko aukerea izan dagian.

Egitaraua

Maiatzak 14, zapatua

12:00etan, herri kirolak Diman
19:00etan, Igorreko Lasarte Areatoan ekitaldia. Arratiako Bertso Eskola, Galiza eta Arratiako Insti-

tutuko ikasleak.

Maiatzak 15, domekea

11:00etan, berbaldia Areatzan Iñaki Esparzaren eskutik "Galiza eta Euskal Herria, olerki eta bertsoen mundua".

19:00etan, regueibertsoan, ikuskizun herrikoia Zeanuriko plazan.

Maiatzak 16, astelehena

09:00etan, bisita gidatua Igorretik Angel Larrearen eskutik. Ostean, Igorreko Udaletxean harrerea eta ondo etorria Institutuan. Bilbotik bisita gidatua Zenbat Gara alkartegaz.

Bretainiagaz eskola trukea

Egunotan, ikasleen arteko beste truke bat be antolatu dau Arratia Institutuak. Trukearen helburuak dira, frantsesa ikasten daben ikasleak frantsesa bera praktikan ipintea, euren ohiturak *in situ* ikusi eta ikastea eta beste herrialde bateko gazteak hartu-emonak izatea. Frantsesa ikasten daben DBH 4.eko 14 ikasleak hartu dabe parte.

Guingampeko gazteak, arratiarrak eskolan egon bitartean,

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefona 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

agoa hain klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igoite-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zabalde 101
R.P.S. 31/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kiliigorre@gmail.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Airezatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoite Bizkaia

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

batez be inguru ezetuteko txangoak egin dabez. Irakasle baten laguntzeagaz, Bizkaibusa hartuta Gernika eta Mundaka bisitau eben, baita, Dima, Areatza eta Durango be. Hurrengo egun baten, itsasadarreko ezkeraldetik ibili ziran bretoiak, Portugaleta eta

Gallarta ezetuten eta, azkenik, Bilbo bisitau eben: Zazpi Kaleak eta Guggenheim inguru. Hemengo ikasleen etxeetan egon dira eta Britainiara bueltatu aurretiko azken eguna hemengo familiakaz pasau eben.

Domekan, danak, bretoiak eta

Truke bi antolatu ditu
Arratia Institutuak. Bata
Galizako ikasleakaz eta
bestea Britainiakoakaz

arratiarrak Guingamperantza abiatu ziran. Holan, apirilaren 25etik 29rako astean, Britainia ezetuteko txangoak egin ditue arratiarrak hango kideak Institutuan egon diran bitartean. Guingampeko errekan kanoetan ibili dira, Breatat irla bisitatu dabe, Mont Saint Micheleko abadia,

Saint Malo eta Guingampeko herria bera... Bretoi jantza eta kantu ikastaroak egin dabez, baita krepeak egiten ikasi be.

Alkarregaz eta etxeokaz komuniketako gaztelania, frantsesa eta beharrezkoa izan ezkerre ingelesa erabili dabe gazteak.



AUKEREN AZOKA

Maiatzak 14
10:00 – 20:00
Kultur Etxean (Igorren)

Eta gainera...

Hitzaldia
“Nola AURREZTU argiaren fakturan”
12:00 - EUSKERAZ
17:00 - ERDARAZ

 **17:00**
Umeentzako tailerrak

20:00 Zozketea (SPA+AFARIA)
** Bertan egon behar da*



Arratiako Musika Eskola



IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak

10:00etatik - 13:00 arte

- *Matrikulazioa posta elektronikoz:
arratia.musikaeskola@gmail.com

Tlfnoa: 94 631 73 52

MENDIA

Errotak, natura eta kirola



Erroten Ibilaldia.

Maiatzaren 8an izango da Zeanuriko Erroten XI. Ibilaldia.

Jon Urutxurtu

Maiatzaren 8rako prestatu dau Joko Alai Alkarteak 2016ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamaikagarren edizioa beteko dau oinezko

marxa honek eta antolatzaileak adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, heritarrai zein kanpotik hurreratzen diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezetuten emotea; bestetik,

Zeanuriren historian errotak izan dabek garrantzia ezagutarazotea eta azkenik, domeka goiza natura-gaz harremantean eta kirola eginez pasetako aukerea eskeintzea". Ez dira gixi, izan be, herri honetan ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran errotak edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan—Ibargutxin eta Olabarrin—sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Bi ibilbide: luzea eta laburra

Bi ibilbide prestatu dabez antolatzaileak, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana.

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, eta Altziber eta Errotabari erroten ondotik pasau ostean, Undurrakako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe parte-hartzaileak. Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserrien ingurutik aurrera eginez, Undurraga auzunera jaitsiko dira Ibargutxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, atek zabalik izango

dira, eta gura dabek kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxik Lanbreabeko errotara, eta hemendik barriro Undurrakako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari—oraingoan beste aldetik—; presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barrizeko jan-edana banatuko dau Gastronomía Cantabricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, azken kilometroa beteten

hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarriko, eta bisitetako aukerea izango da, ate batetik sartuz eta bestetik atereaz, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik.

Ibilbidea amaitutakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gainera, udabarrian naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

IBILALDIARI BURUZKO ZEHETASUNAK

Eguna: maiatzaren 8a, domeka.

Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 4€.

Urtekerea: 09:00etan.

Ibilbidea: 18 kilometro inguru; ibilbide laburra: 12 kilometro.

Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak.

Errotak lanean: ibilaldiaren hasieran Ibargutxiko erroten eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.

Antolatzailea: Joko Alai Alkartea.

Laguntzaileak: Gastronomía Cantabrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde Landa Garapen Alkartea, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubiladuen taberna eta Arratiako Gurutze Gorria.

FUTBOLA

Liga amaierara helburu desbardinakaz

Erredakzioa

Andrazkoak euren atzen bi partiduetan ez dabe oso emoitza onik lortu, Añorga Bren kontra galdu

egin eben etxean eta Bizkerreren kontra bana bardindu eben. Bigarren dago Arratia, eta Gasteizko Neskak taldea jardunaldi biren faltan txapelkun da. Arratia edo Bizkerre izango dira bigarren. Arratiak puntu biko aldea ateraten deutso.

Gizonezkoak osterara atzen bi partidua bardindu eta galdu ostean gatx daukie ez bajatutea. Hiru partiduren faltan 3 puntura daukie aurrekoa. Hurrengo partidua Igoarren jokatuko dabe Loiuren kontra.

AZKOREA

Irati Astondoak marka ipini dau azkoran

Erredakzioa

Apirilaren 16an, Ordizian, Goierriko 7 orduak ekitaldiaren barruan, Irati Astondoak 45 ontzako 6 enbor moztu ebazan 21 minutu eta 58 segundutan. Andrazko batek inoz egin bako proba zan hau, eta zeanuriztarrak ipini dau lehenengo marka.

Aitzol Atutxa, Andoni Urrutia eta bere aita Pabi Astondoa izan ditu entrenatzaile Irati Astondoak eta uste baino marka hobea egin dau. "Sinistu ezinda nago ondino be, 30 minutu inguruan botatea espero neban" dino Irati Astondoak. Baina hasi bezain laster, ondo sentiduten zala konturatu zan eta Aitzol Atutxak beharra ondo bideratu eutsala eta egindako denporeak aizkoran jarraituteko motibazioa biztu

deutsala dino.

Areatzako ume aizkolariek

Goierriko 7 orduak kirol ikuskizunaren bigarren edizino honetan, 120 kirolari inguruk hartu eben parte. Arratiatik, Areatzako ume azkolar

taldea be egon zan. Zuhaitz Villena, Oroitz Villena, Urtzi Amuriza, Gorka Amuriza, Jon Garcia, Elur Garcia, Andoni Iturbe eta Haizea Iturbe gaztetxoak be, Jaime Atxaren gidaritzapean, erakutsi eben kirol honek etorkizuna daukala Arratian.



Irati Astondoa.

MENDIA

Zeberio Harana iraupen luzeko martxea hilaren 14an izango da

Erredakzioa

Maiatzaren 14an izango da Zeberio Harana martxea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Zirkuiturako baliagarria. Ibilbideak 48 km.ko luzeera dauka eta 3.200 m.ko desnibela eta berau egiteko gitxienez 6 ordu eta gehienez 12 ordu daukiez ibiltariak.

Urtekerea 07:00retan izango da Zeberio Zubialde plaza-tik. Gero, Murga (606 m.), Piku Bikotx (616 m.), Garaigorta (662 m.), Aibelabe (638 m.), Arrugaita (669 m.), Untzuetta (770 m.), Artanda (550 m.), Upo (573 m.), Tontorrandi (522 m.), Mandoia (638 m.) eta Argiñaoko Atxatik (524 m.) pasauko dira partaideak

Zubialden amaituteko.

Hilaren 6ra arte, online emon daiteke izena Austarri Mendi Taldea edo Runediaren webgunean. Eta egunean bertan, urten aurretik, 06:00retatik 06:30era arte Zubialdeko plazan.



KICKBOXINGA

Aitor Ugalde Zeberiokoa Espainiako txapeldun

Erredakzioa

Apirilaren 24an, Aitor Ugaldek Espainiako Kickboxing Txapelketa irabazi eban Full Contact modaldean, 91 kilotik gorako kategorian. Finala Salamancan jokatu zan. Zeberioztarra, Gaztela eta Leoneko David Romerori nagusitu jakon. Euskadiko selekzioak 29 domina lortu ebazan Txapelketa honetan.

Irabazteko helburuagaz joan zan Ugalde. Izan be, atzen urte bietan zidarra lortu eban, baina apenas burrukan egin barik aurkeztu behar izan zan. "Full Contact-en ez dot euki aurkaririk. Aurten, hemen Euskadin ez dot euki burrukan egiteko aurkaririk eta Espainiakora, gimnasioetan eta bakarrik entrenauta joan be-

har izan neban" azaldu deutso BEGITURI Aitor Ugaldek.

Denporaldi honetan, Euskadiko Txapela be lortu dau. "Sano pozik nago, nire lana ondo egin dot eta emoitzak izan ditu" dino.

Eskolak emoteko proiektua

Hain denporaldi ona egin ostean, egun batzuetako atsedanalditxo bat hartu gura dau txapeldunak. Ez da oso luzea izango, dana dala. Bere proiektuen artean, arte marzialtako eskolak emotea dago. "Igorren eskolak emoteko proiektu bat aurkeztu gura dot. Titulua atera dot eta gurako neke neska-mutilai eskolak emotea. Igorre leku zentrikoa da Arratian, ez dago arte marzialtako eskolarik eta uste dot ondo egongo litzatekela".



Aitor Ugalde Espainiako Txapelketako podiumean.

29 BIEMH
YOU MAKE IT BIG

SMART SOLUTIONS
2016ko
MAIATZAREN 30etik
EKAINAREN 4ra

Konponbide aurreratuak
eta negozio adimendunak
zure enpresarentzat

ADDT 3D by BIEMH
FABRIKAZIO
GENIGARRIAREN ETA
SOREN NAZIOARTEKO
RZOKA

Legatzaileak: **AIMHE** **AFM** **BIEMH**

Autotzaileak: **AFM** **BIEMH**

www.afm.es **BIEMH** **BIEMH**

www.biemh.com **BIEMH**

POSSIBLE!

LEHIAKETEAK

**Jaietako Kartel
Lehiaketarako
lanak bialtzeko
epea zabalik**Erredakzioa

Lemoako jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke udaletxean bagilaren 17ra arte. Lehiaketan herrikoak hartu daikie parte. Lemoako Jaiak 2016 esaldia agertu behar da kartelean. Sari bi egongo dira 175 eurokoak.

Eskuz zein ordenagailuz egingako kartelak onartuko dira, A4 neurrian. Kartelak egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira.



AISIA

**Abuztuko
Sopelako
udalekuearako
izena emon
daiteke**Erredakzioa

Zaztapparrak Asti taldeak Sopelan antolatutako udalekueara umeak bialtzeko, maiatzaren 13 eta 14an emon daiteke izena Igorreko Kultur Etxean.

Sopelan abuztuaren 2tik 13ra egongo dira eta prezioa 202 euro umeko da. Neba-arrebak deskontua daukie, 357 euro. Izen emotea, hilaren 13an, barikuz, arrastiko 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuan 11:00etatik 13:00etara egin daiteke.

Udaleku gehiago be eskeiniko dabez Zaztapparrakoak, uda Arratian zein Arratiatik kanpo pasetako.



BERTSOLARITZEA

**Hirugarren egin eben Udabarri Faseko
kanporaketan Illart Gumuziok Erandion
eta Iñaki Iturriotzek Ondarroan**Erredakzioa

Apirilaren 23an, Erandion jokatu zan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarri Faseko hirugarren kanporaketea. Arratiako Illart Gumuziok hartu eban parte, hirugarren eginaz. Kanporaketea, Uribe Kostako Arrate Illarok irabazi eban. Hurrengo egunean laugarren kanporaketea jokatu zan Ondarroan. Han be, arratiar bat lehian, Iñaki Iturriotz, eta honek be hirugarren egin eban. Ondarroan, Lea-Artibaiko Nerea Ibarzabalek lortu ebazan punturik gehien.

Zapatuko saioa, Erandioko Josu Murueta Kultur Etxean jokatu eben sei bertsolarik, eta antolatzaileen arabera, giro ederrean joan zan. Irabazleak 188 puntu lortu ebazan, Paule Loizaga bigarrenak, 161 puntu, eta Illart Gumuziok hirugarren egin eban 142,5 puntugaz.


Astegoieneko bigarren saioa, Ondarroako Bekozini antzokian jokatu zan. Hemen be sei bertsolari lehian. Aretoa bete-bete egin zala eta giro ederra nagusitu zala dinoe antolatzaileak. Kanporaketea, Nerea Ibarzabalek irabazi eban 188,5 puntugaz; bigarren Mikel Retolazak egin eban 174,5 puntugaz eta hirugarren Iñaki Iturriotzek 172 puntugaz.

Ondarroako kanporaketearen ostean, Iñaki Iturriotz 7. zan sailkapenean eta Illart Gumuzio 17.

Erandion, Amaia Ugalde eta Ondarroan, Zihara Enbeita ibili ziran, hurrengo hurrengo gaiak emoten. Jon Jaiok, Mirari Azulak eta Miriam Juaristik osotu eben epaimahaia saio bietan.

Hurrengo arratiarra Igor Menika

Igor Menikaren txandea maiatzaren 22an izango da arrastiko 17:30ean. Arantzazukoa, Getxoko Fadura kiroldegian saiatuko da kanporaketea irabazten.



Illart Gumuzio Erandioko saioan.

ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ**ESKAINZA OSOA****GOI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 6tik 17ra

Matrikula
uztailaren 11tik 15era



Etorkizuneko Lan-Erronkeei Erantzuteko



Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com



MUSIKEA

Areatzan eta Igorren Musika Eskolen Europako jaia maiatzaren 6 eta 7an

Erredakzioa

Emusik, Musika Eskolen Europako jaialdiaren hamabigarren edizioa da aurtengoa. Bertan, milaka gazte europarrek 120 kontzertu baino gehiago emongo ditue 59 herritan, maiatzaren 4 eta 7a bitartean, tartean Areatzan eta Igorren. Areatzan, maiatzaren 6an izango da kontzertua herriko plazan 18:30ean eta Igorren, hurrengo egunean Kultur Etxean 11:30ean. Musika Eskolen Europako Elkarteak (EMU) antolatu dau jaialdia.

Kontzertu biak Europaren ereserkiagaz hasiko dira. Arratiako Musika Eskolako ikasleak be joko dabe ereserkia, aurreneko taldeagaz batera. Hau da, Areatzan Suitzako gitarra orkestragaz eta Igorren Esplugues de Llobregateko banda sinfonikoagaz. Gero, Areatzan Musikschule Brugg-eko hogeitarroko osotutako orkestreak joko dau, Reinach (Alemania) eskolako 16 eta 18 urte



bitarteko sei gazteren comboak gero, eta Torroella de Montgriko orkestra eta abesbatzaren txandea izango da ondoren. Areatzako kontzertua amaitzeko, eurakaz batera, Arratia Musikako ikasleak, "Musikatu bizitza" Emusik festibaliko abestia joko dabe.

Igorren, ereserkiaren ondoren Esplugues de Llobregateko Banda sinfonikoak joko dau. Gero, Alemaniako Städtische Musikschule Esslingenek 12 eta 55 bitarteko 32 musikaririk osotutako Big Band eta orkestrak emonaldia eskeiniko dau. Amaitzeko, Arratia Musika Eskolako ikasleak eta Alemaniako Big Band eta orkestrak batera "Musikatu bizitza" jo eta kantauko dabe.

Donostia 2016

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren proiektua da EMUSIK, eta egoitzak EAEn, Nafarroan, Iparralden eta Errioxan izango ditu. Herrietan joko daberen parte-hartzaileak Europako hurrengo herrialdeetatik etorriko dira: Espainia, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Danimarka, Estonia, Finlandia, Frantzia, Alemania, Hungaria, Italia, Letonia, Liechtenstein, Luxenburgoko, Norvegia, Austria, Polonia, Eslovakia, Suedia, Suitza eta Herbehereak.

KULTURA ASTEA

Memoria eta Kultura Astea Lemoan maiatzaren 9tik 15era

Erredakzioa

Memoria eta Kultura astean Memoria Historikoaren gaineko berbaldi bi egongo dira Lemoan. Lehenengoa hilaren 9an izango da, arrastiko 19:30ean udaletxean. Bigarrena, hilaren 11n izango da leku eta ordu berean. Han, Belen Solek eta Beatriz Diazek Bilbo Handian andrazkoak frankismoan bizi izandako errepresinoaren gainean egingo dabe berba. Hilaren 15ean, goizeko bederatzietan, Lemoatxeko lubakiak txukuntzeko auzolana deitu dabe. Izan be, aurreko urteetan Auzolandegietan berreskuratutako lubakiak nahiko txarto dagoz eta mantenimendu lana behar dabe. Hurrengo astean, hilaren 20, 21 eta 22an, Lemoatxako bataila antzetzuko dabe.

Astean zehar, ekitaldi asko egongo dira eskolan. Beste batzuen artean, ikasleen lanen erakusketak, zeramika lanen erakusketak, Harro Bizi Eus-

keraz abestiaren jantza, kultur jolas ginkana eta dramatizazio saioa.

Arratiako Musika Eskolako ikasleak kontzertua eskeiniko dabe hilaren 12an arrastiko zazpiretan eleizan. Hurrengo egunean musikeak kaleak eta tabernak hartuko ditu, Taberna Ibiltariaren eskutik, Herradura Tabernatik hasita, 20:00etan.

Ikasleen emonaldiak, Joko koralak eta azoka solidarioa be ez dira faltauko kultura eta memoria batzean dauzan astean.



DUNBA

Arteko txikiak, proiektu handiak

Arteko eskolea

Otsoak, zirkuak, gazteluak, museoak... Arteko eskolako Haur Hezkuntzako proiektuetan danak daukie lekua.

Baina, zelan bideratu proiektu bat?

1. Umeen interesetatik abiatuta proiektua aukeratu, helburu zehatz batez eta guztion artean adostuta.
2. Gai horri buruz dakiguna eta jakin nahi doguna hormairudi baten idazten edo isladatzen dogu.
3. Planifikazioa egiten da eta umeai aurkezten jakie, beti eskura edukiko dabelarik.
4. Gaia elikatu egiten da. Hau aurre-aterateko familien parte hartzea ezinbestekoa da, etxetik informazioa, materialak eta abar ekarteko.
5. Informazio iturriak ulertu.

6. Prozesua burutu.

7. Aurkezpena egin, bai eskolakoentzatzat eta bai familiakoentzatzat, proiektua publiko eginaz.

Hiruhilabete honetan, aurreko sekuentziari jarraituz, 2 eta 3 urteko umeak gaztelu bat egitea erabagi eben.

Lehen urratsa, gaztelua zegaz eregi behar genduan ebaztea izan zan eta esne kutxakaz egitea pentsau genduan. Gazteluaren idea orokorrak bameratu ostean eraikuntza gaiari heldu geuntsan, eta segiduan topau genduan lehen arazoa: "Norbaitek badaki horma bat eregiten?", "Zegaz eregiten dira hormak?". Korroan galdera bi honei erantzun eta urtenbide desbardinak planteau jakiezan: "Hormak adreiluzkoak dira",



Arteko eskolako 4 eta 5 urteko umeak.

"pegamentua behar dogu", "Ez pegamentua ez, zementoa"...

Proba asko egin ostean, aurretik esandako pegamentuakaz kutxak ez ziralda pegetan konturatu ginan eta ama bat etorri jakun bere eskolan zelan egin eben azaltzera: silikona pistoleagaz!

Orain bai! Hasi geintekaz gaztelua egiten! Gazteluaren neurriak jakiteko, ipiniko genduan lekuaren zabalera eta gure altuerak kontutan hartu behar genduzala konturatu ginan. Atearen zabalera eta altuerak gure esne kutxakaz eta eskuakaz neurtu genduan. Eta gazteluaren beharrezko altuerak jakiteko gure siluetak egin genduan. Apurka-apurka gaztelua handitzen joan zan, margoztu eta apaingariak ipini ondoren munduari erakusteko prest egoan gure gaztelua!

4/5 urteko gelan, bariz, Museoan izeneko proiektua burutu dogu.

Plastika txokoa artean ederrak egiten ebiltzala ikusita, museo bat

ipini beharko ebela hasi nintzen esaten erdi txantxetan. Idea ona iruditu jakien eta lanean hasi ginan.

Museoai buruz aurrezagutza batzuk baeukiezan: "Artea dago", "Arnak dagoz", "Antxinako gauzak dagoz", "Argi gitxi dago", "Arauk dagoz", "Koadroak dagoz", "Batzuetan musika dago"...

Zer egin gura eben be argi eukien: museo bat montau!

Inauterietan proiektu erdian harrapatuko ginduzala ikusita proiektua hiru zatitan banatzea ebatzi genduan:

- Inauterietako moztorra egin museoaren gaiaren inguruan: artistak eta euren lanak (koadroak).

Horretarako etxetik informazioa, liburuak, koadroen erreproduktzioak, intemetan aurkitutako argazkiak... ekarri genduan. Senide batzuk be lanak erakusten eta teknika batzuk irakasten etorri jakuzan.

Artistak eta lanak aztertu, plagiatu, neurtu, eurai buruzko informazioa irakurri eta gero gustukoena aukera-

tu genduzan moztorra erakoz.

Behar genduzan gauzak zerrendatu eta etxerako ohar bat idatzi genduan (idazkera esanguratsua).

Emoitea itzela izan zan!

- Museo baten bisita. Bilboko Arte Ederretako aukeratu genduan, bisitearen planifikazioa egin genduan: Zelan joango gara? Noz joango gara? Zer eroan behar dogu?...

Bisitan aurretik geunkazan galdera batzuen erantzunak aurkitu genduzan eta horren ostean bisiteari buruzko liburuak bat idatzi genduan danon artean.

- Museoan montetea izan zan atzenengo pausua.

Horretarako guk egindako koadroak, eskulturak (Jeff Koonsen tulipanak be bai!), prozesuaren hormirudiak, artelanen katalogoa (lan bakoaren izena, artista, neurriak, data eta teknika), landutako teknika guztien emoitak (kanika txoroak, dripping, puntillismoa, kollage, temperak, hondakinakaz egindako arte-lanak...) eta eszenifikazio polit batzegaz eskolako lagunak eta gurasoen aurrean publiko egin genduan gure lana Pitinimie Museo Fantastikoaren inaugurazio egunean.



Arteko eskolako 2 eta 3 urteko umeak.



AGENDEA

MAIATZAK 3
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 6ra arte, izen emotea Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako maiatzaren 15eko Lizarraga-Unanua ibilaldirako.

IGORRE/LEMOA

Maiatzaren 31ra arte, Irakurri, Gozatu, Oparitu egitasmoa.

LEMOA

Bagilaren 17ra arte, Lemoako jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

27ra arte garagarilaren 31n egingo dan XIX. Artisautza Azokan izena emoteko epea. 94 631 30 05 telefonoan emon izena.

27ra arte, Euskal Jairako txartelak udaltxearen salgai. Bagilaren 4an izango da Euskal Jaia.

ZEBERIO

12:00etan, Santakurtze ermitan mezea. Erramuen bedeinkapena. 12:45ean, barauskarria Arroita bistularien animazioagaz.

MAIATZAK 5
LEMOA

19:30etik 21:30era, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendiko autobabes ikastaroa Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

MAIATZAK 6
AREATZA

18:30ean, Emusik jaialdia herriko plazan. Ikusi programea 13. orrialdean.

22:00etan Maxi Caballero Quartet. The Quiet Corner-en.

DIMA

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa. Plazan.

IGORRE

19:00etan, Zugar Ni IX. Antzerki Jaialdia. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Harrotxu ginkanan parte hartzeako izena emoteko atzen eguna. Euskera Zerbitzuan.

MAIATZAK 7
ARANTZAZU

09:30ean, Arantzazuko Iturrien V. Bira. Plazatik

urtenda.

AREATZA

Karpoko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

22:00etan, The Romanticos The Quiet Corner-en.

IGORRE

11:30ean, Emusik jaialdia Kultur Etxean. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

20:00etan, Maxi Caballero Quartet Lasarte Aretoan.

LEMOA

Arantxeko jaiak.

MAIATZAK 8
AREATZA

Karpoko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

IGORRE

11:00etan, Eizu Change. Kiñu Gaztetxean.

17:00etan zinea, *Oker* (euskeraz); 19:30ean, zinea *Mustang* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

09:00etan, Zeanuriko Erroten XI. Ibilaldia.



Txan Magoa Igorreko Kultur Etxean

Maiatzaren 13an, arrastiko bost et'erdietan, Txan Magoak *Txinbili-txanbala* ikuskizuna eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean.

Sano ezaguna da Txan Magoa, askotan agertu da telebistan, antzerkian eta jaietan, eta bere "artila mortxila" ospetsu egin da Euskal Herri osoan.

Txan Magoak orain dala 15 urte egin eban bere lehenengo magia ekitaldia. Santi Antero, Txan Magoa, Gipuzkoako Ilusionisten Elkarteakoa, Areto Magian aditua da. Bere ekitaldietan zapiak, pelotak, kartak eta sokak erabilten ditu. Ikuskizuna egokia da ume, guraso zein aitita-amamentzat.

Plazan.

MAIATZAK 9
LEMOA

15:00etan, Idazleak ikastetxean: Laida Martinez. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxean.

19:30ean, Lemoako Udaleko Gizartekintza Zerbitzuak antolatutako berbaldia: "Memoria Historikoa". Udaletxean.

MAIATZAK 10
LEMOA

JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, arrastian azoka solidarioa eskolan.

MAIATZAK 11
LEMOA

16:30ean, Ekilore Zeramika taldeak antolatuta, zeramika lanen erakusketea eskolako patioan.

19:30ean, Belen Sole eta Beatriz Diazen berbaldia: "Mujer y franquismo en el Gran Bilbao: la represión a la luz de la memoria oral". Udaletxean.

MAIATZAK 12
IGORRE

17:30ean, Errotako batzarra. Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

MAIATZAK 13
DIMA

18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Amalur* ikuskizuna frontoian.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Zaztaparrak Asti Taldeak Kultur Etxean.

antolatutako udalekueetan izen emotea Kultur Etxean.

20:00etan, kantu-pote Jubiladuen tabernatik hasita.

21:00etan kontzertuak. Tooth eta Hiena taldeak Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

15:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, ikasleen emonaldia.

19:00etan, Komite Internazionalistakeko kide baten berbaldia "Inperialismoa, errefujiadua sortzeako makinea". Karabie Gaztetxean.

20:00etan, Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, Taberna Ibiltaria musika taldea Herradura Tabernatik.

ZEANURI

20:00etan, Zamudio, Bilbo eta Zeanuriko koruak eta bistulariak Udabarriko kontzertua Andra Mari parrokian.

ZEBERIO

19:00etan, Austarri Kultur Elkartek antolatuta, ikuskizuna Eidabe *Futbolariak eta printzesak*. Plazako ermitan.

MAIATZAK 14
AREATZA

20:00etan, Antton Aranburu Band, The Quiet Corner-en.

ARTEA

10:00etan, Artean Kultur Dinamika saioa.

DIMA

12:00etan, herri kirolak.

IGORRE

10:00etatik 20:00etara, AMEk antolatuta Aukeren Azokea. 12:00etan, berbaldia "Zelan aurreztu argiaren fakturan" euskeraz; 17:00etan gaztelaniaz; 17:00etan, umeentzako tailerrak; 20:00etan zozketea: spa eta afaria. Kultur Etxean.

11:00etatik 13:00etara, Zaztaparrak Asti Taldeak antolatutako udalekueetan izen emotea Kultur Etxean.

19:00etan, Arratiako bertso eskolea, Galiza eta Arratiako ikasleen ekitaldia. Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:30ean, Arratiako Musika Eskolak antolatuta, Joko korallak Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

17:00etan, Lemoako Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatuta, Harrotxu ginkana Gaztetxe azpian.

ZEANURI

Suzien Mendi Kulbak antolatuta Anbotoko gandorrek. Ipar mendebaleko gailurrera igoera eta gandorra segiduta Larranora. II+ eta III. mailako pasarteak dituan 5 edo 6 orduko ibilbidea, kaskoa derrigorrezkoa da. Interesatuak deitu 654 256 775 telefonora edo suzienmendikluba@gmail.com helbidera idatzi. Plaza mugatuak.

14:30ean herri bazkaria jubiladuen tabernan; 17:00etan, umeentzako tailerrak; 19:00etan, Benta Zaharreko Mutil Alaiak kantu-bertso-poteoa.

ZEBERIO

07:00etan, Zeberio Harana mendi martxea. Zubialden.

MAIATZAK 15
AREATZA

11:00etan, berbaldia Iñaki Esparzaren eskutik "Galiza eta Euskal Herria, olerki eta bertsoen mundua".

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatutako Gasteiz-Iruña zeharkaldiaren X. etapea. Lizarraga-Unanua. Beriain (1.493 m.).

IGORRE

17:00etan, zinea *El inventor de juegos*; 19:30ean zinea *Hermanisimas* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:00etan, Auzolana Lemoatxako lubakietan. San Antolinen.

ZEANURI

San Isidro Eguna. 10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen XXXV. Azokea. 19:00etan, Reguibertsotan ikuskizun herrikoia plazan. Ikusi egitarau osoa 7. orrialdean.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *Tocaoras*. Plazako Eskola Zaharrean.

MAIATZAK 16
BEDIA

16:30etik 19:30era, bagilearen 3ra arte, jaietako Paella Lehiaketan parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

09:00etan, bisita gidatua Angel Larrearen eskutik.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesauta egon ezkerro, 686 495 724 telefonora deitu.

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak

bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIRUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakoitxak. 659 395 911.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolari autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Bizkaiko Bertsolari Txapelketako maiatzaren 8ko Orozkoko bertso saiorako bina sarrera.

Ibon Sagastabeitia (Bilbo)
Sara Gutierrez (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Txan Magoaren ikuskizunerako.

Amaia Arauzo (Zeanuri)
Juanma Labandibar(Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Aukera. 2.- Izanez. 3.- Bokala. Emea ez dana. Suagaz batera. 4.- Jatorri atzizkia. Kataluniako ibaia. 5.- Aintzaz. 6.- Hika andrazkoai. Zarata bako. 7.- Oxigenoa. Erbioa. Min daukagunean dinogu. 8.- Lapraskor. Mila erromatar. 9.- Berba alkarketan, ate. Kretako mendia.

GOITIK BEHERA

1.- Bokala. Edozelan. 2.- Parea. Berba egiteko organo. Kanpo. 3.- Zemendi. Lehen andrazkoa. 4.- Sugar. Zeozer arin baten egitea. 5.- Ospa hemetik. (Atz.) Adan eta Ebaren hirugarren semea. Persona izenordaina. 6.- Eragozpena. Bostehun erromatar. 7.- Deus. Karraka.



Topau Euskadiko zazpi hondartzaren izenak.

M	U	R	G	E	D	A	S	U	L
O	Z	O	R	U	L	K	E	M	I
Z	U	L	K	A	E	A	N	O	B
T	R	I	A	Z	P	R	G	B	A
A	R	G	E	N	T	A	L	A	D
R	I	N	G	O	R	L	I	Z	E
R	O	I	P	S	A	R	R	A	K
E	L	K	A	T	Z	I	B	E	I
K	A	T	U	N	T	X	O	G	R
A	S	K	O	N	U	L	E	R	O
Z	E	A	N	U	A	L	K	O	R
I	L	A	K	I	R	R	A	B	I
R	O	X	D	L	A	U	S	T	A
K	I	A	S	U	Z	A	R	M	I
A	Z	K	U	M	E	R	A	U	J

AKMIKO

Iman Olatu



umeen moda
SEM
0-10
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo • 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEU ERDARAZ
Baimenak: A1, A, BTR, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 631 91 52
48140 IGORRE (Bizkaia)
garante@euskalnet.net

ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA KONTSUMO ZUZ. ADMINISTRAZIO ZUZ. INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz bain ezinez
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63
e-parta.una@euskalnet.net

ZEINKE TALDEA

Zortzi abestik osotzen dabe Zeinke taldearen *Sormena, kemena* azken diskoa

Jokin Uriarte (gitarra, abotsa), Pablo Ruiz (bajua, koroak) eta Mikel Muesas (bateria) Zeinke taldeko kideak gogotsu dagoz zuzenekoetan egurra emoteko. Euren ibilbideko lehenengo estudioko diskoa kaleratu dabe eta hustu diranaren sensazioa daukiela dinoe arratiarrak. Maiatzaren 21ean egingo dabe diskoaren aurkezpena Karabie Gaztetxean (Lemoan). Orduetik aurrera beste hainbat kontzertu eskeiniko dabez: maiatzaren 7an Usasolon, bagilearen 25ean Bedian eta garagarrilaren 24an, Zornotzan, berbarako.

Rakel Aldekoa Diez

Zein izan da zuon ibilbidea?

Jokin Uriarte: Zeinke 2014 urteko urte hasieran hasi zan. Izan be, Bidean Galduta izeneko proiektu zaharra 2013ko udabarrian amaitu zan eta bertan bat egin genduan Mikelek (bateria) eta biok. Udabari eta uda luze baten ostean Bidean Galduta jada itxia geunkan. Nik abesti batzuk neukazanez, barriro be geratzea ebatzi genduan. Zornotzan hasi ginan ensaioak egiten eta gero Pablo Ruizeri deitu geuntsan. Beraz, 2014ko martian hiru hilabete ensaiatzen egon eta gero gure lehenengo kontzertua emon genduan Zornotzan.

Zelan ikusten dozue musikearen egoera Arratian?

Mikel Muesas: Arratian beste leku batzuetan baino hobeto ikus-

ten dot. Izan be, talde asko dagoz eta asko mobiduten dira. Zornotza edo Durangaldean esate baterako, ez da gauza bera gertatzen.

Pablo Ruiz: Arratian azkenaldian, oso igoera handia ikusi da. Talde asko sortu dira: Larregi, Materia Gris, Nik Khaos, eta abar. Gaur egun, panorama musikalean mobimentu handia dago beste leku batzuek alderatuta. Gainera, andrak be animau dira. Beraz, Arratian topera gagoz.

J.U.: Nire ustez, eszena garrantzitsua sortu da eta gainera harrigarriena da estilo guztietako musikea daukagula: Materia Gris (reggae), Nik Khaos (metal), rock and rolle-roak, punk rock taldeak, eta abar.

Lokalak lortzeako erretasunak dagoz, ezta?

J.U.: Gure kasuan pribilegiuak sentiduten gara. Orain, diskoa

Bilboko lokal batzuetan grabetan gagozala, teknikariak esan deusku, Bilbon 200 euro ordaintzen dituala talde bakotzak hilerok lokalak eukitearren. Gure kasuan, Igorren lokal bi daukaguz, gainera debalde. Hasieran, fiantsa bat jarri behar da, 100 eurokoa eta horren harira, giltza emoten deusue. Egunen baten taldea itxi gura badozu Igorreko Kultur Etxera joan behar dozu eta dana ondo badago 100 euroak bueltetan deusuez. 24 ordu zabalik daukaguz lokalak, hiru talde gagoz lokalean baina ez dogu ordutegi arazorik eukiten.

P.R.: Zornotzan ensaiatzen hasi ginan, baina han beste roilo bat da. Lokalen kalidatea, sonoritatea, eta abar, ez zan hain ona. Arratian suertea daukagu oso eskura dagozalako lokalak eta kalidatezkoak diralako. Horretan ezin gara kejar. Gaur egun, erretasunak behar dira ensaietako.

M.M.: Zornotzan ordu bat egoteagaitik euro bi ordaindu behar ziran. Gainera, ordua eskatu behar zan eta hiru lokal bakarrik egozan. Lokalen bat okupata egon ezker ezin zan ensaiarik egin.

Non gustauko litxakizue kontzerturen bat jotea?

P.R.: Batzuetan, espero ez dozun lekuren baten sortu ahal da gehien gura dozun kontzertua. Beste batzuetan, barriz, gertatzen da leku

batera zoazela eta ordutegia txarra dalako, edo beste hainbat errazoi desbardinengaitik jentea beste roilo baten dagoala eta gura dozun ambiente hori ez dala sortzean. Edo joan zaitez ez dakit nongo lokal galdu batera eta kriston kontzertua jo. Nik gurari berezirik ez daukat. Garrantzitsuen kontzertuetan ambiente sanoa sortutea da.

J.U.: Nik momentu honetan maiatzaren 7an Usasolon joteko gogoia daukat. Hurbilen daukagun kontzertua da. Hilabete batzuk daroguz kalean jo barik eta gogotsu gagoz. Hortik aurrera etorten dan guztia ondo etorria izango da.

M.M.: Nik Zornotzako jaietan joteko gogoia daukat. Zornotzako Gazte Egunean jo genduan kontzertua baina Zornotzako jaietan jotea falta jaku. Jada, Bedian eta Lemoan jo dogulako.

Zein izan da kontzerturik hunkigarriena?

P.R.: Niretzat Bilboko jaietan jotea suerte handia izan zan. Bilbon gainera, eszena eta ambiente handia dago. Oso gustora ibili ginan oholta gainean. Igorreko Herriko Tabernan jo genduanean akustikokan izan zan baina jentea oso hurbil egoan eserita, gugaz batera abesten, eta hori oso hunkigarria izan zan.

J.U.: Ados. Bilboko Aste Nagusia badakigu danok zelangoa dan bai-

na nik espero dot onena etorteko egotea. Orain esperantza handiko aro barri bat zabaltzen dogu eta.

M.M.: Nik be Bilbo esango dot ze oholzatik jeitsi ginanean lagunak esan euskuen "kriston kontzertua jo dozue" eta niretzat hori lagunak esatea oso hunkigarria da, kontuan hartuta, nire lagunak oso musikazaleak ez dirala.

Zer espero dozue disko barri honetaz?

J.U.: Zortzi abesti dira, denpora asko emon dogu abestiei bueltak emoten. Gure kasuan gogo berezia sentidu dogu zerbaist barria aterateko baina ez edozein modutan. Horrezaz gainera, uste dot oso ondo aukeratu dogula nogaz grabau. Bilbon gabiz grabetan Urtzi Izagaz, Enkoreko gitarristeagaz. Governors eta Hesianegaz be ibilitakoa da Iza. Eta uste dot gure proiektuagaz sano inplikata egon dala; eta hori eskertzekoa da. Irrikitan gagoz diskoa kaleratzeko eta jentek entzuteko. Maiatzaren 14an gitxi gorabehera prest egongo da diskoa.

P.R.: Maitasun berezia hartu deusagu diskoari. Hirurok asko zaindu doguz abestiak. Danok gagoz amaitzeko eta emoitza ikusteko gogoagaz. Udeari begira hainbat kontzertu doguz. Behin diskoa aterata zuzenekoak eskeintzeko irrikitan nago, zuzenekoak gehiago transmitiduten dabe eta.



LANERAKO PRESTATU ZAITEZ

EMAN IZENA
AURREMATRIKULERAKO
INFO@ZULAI BAR.ORG Tel: 946739116

15-17 URTE, eta EZ DUZU GRADUATURIK?

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOA
(Elementu metalikoen fabrikazioa / Elektrizitatea eta elektrinonika)

FORMAZIO DUALA
ZIKLO GUZTIETAN

KONTRATU EDO BEKAZ LAN
EGITEKO AUKEREA

ZIKLO
BERRIAK

• MENDEKOTASUN EGOERAN
DAUDEN PERTSONEI ARRETA
EGITEKO TEKNIKARIA (Erdi maila)

• FABRIKAZIO MEKANIKOKO
DISEINUKO GOI MAILAKO
TEKNIKARIA (Goi maila)

ilunbe
Ingenieria energetika

ETHAZI tecnicapa

IKERTER

(ETEKIN HANDIKO ZIKLOAK)
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA
AUTOMATIKOETAKO ERDI MAILAKO ZIKLOAN
ENPRESEKIN ALKARLANEAN

✓ Eskola-garraioa: Llodio, Basauri, Galdako, Zornotza,....

HETEL

Erasmus+

ekoLEDs

Tknika